DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Osasun Publikoa eta Animalien Ongizatea
Salud Pública y Bienestar Animal

Mandasko Dukearen Pasealekua, 12 | Tel. 943483878 | osasuna@donostia.eus | www.donostia.eus
20012 Donostia / San Sebastián

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Batzar Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

2023/022 esp.

MENDEKOTASUNA SORTZEN DUTEN SUBSTANTZIAK KONTSUMITZEA EDO EDUKITZEA PREBENTZIO PROGRAMAREN ZERBITZUA. BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA	**PLIEGOS DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA EL SERVICIO DEL PROGRAMA DE PREVENCION POR CONSUMO O TENENCIA DE SUSTANCIAS ADICTIVAS**
1. Kontratuaren xedea Baldintza Teknikoen Agiri (BTA) honen xedea da arautzea substantzia mendekotasuna sortzen duten substantziak kontsumitzea edo edukitzea prebentzio programaren zerbitzua. Substantziak kontsumitu edo eduki dituzten pertsonei, taldeei eta familiei laguntzeko eta orientatzeko zerbitzua izango da.	**1. Objeto del contrato** El objeto de este Pliego de Prescripciones Técnicas (PPT) técnicas es regular el Servicio del Programa de Prevención por consumo o tenencia de sustancias adictivas. Se define éste como un servicio de apoyo y orientación a individuos, grupos y familias en las que se han detectado consumo o tenencia de sustancias.
2. Lege esparrua Enpresa esleipenduinak zerbitzua emateko honako lege esparrua izan beharko du kontuan: - 1/2016 Legea, apirilaren 7koa, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa. - 4/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, Herritarren Segurtasuna Babestekoa. - 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babestekoa. - 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Osorik Babestekoa. - 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoa, Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea partzialki aldatzen dituena. - Adikzioak Prebenitzeko Donostiako Plana 2023-2027.	**2. Marco Legislativo** La empresa adjudicataria deberá realizar el servicio teniendo en cuenta el siguiente marco legislativo: - Ley 1/2016, de 7 de abril, de Atención Integral de Adicciones y Drogodependencias. -Ley Orgánica 4/2015, de 30 de marzo, de protección de la seguridad ciudadana. - Ley 3/2005, de 18 de febrero, de Atención y Protección a la Infancia y la Adolescencias. - Ley Orgánica 8/2021, de 4 de junio, de protección integral a la infancia y la adolescencia frente a la violencia. - Ley Orgánica 1/1996, de 15 de enero, de Protección Jurídica del Menor, de modificación parcial del Código Civil y de la Ley de Enjuiciamiento Civil. - Plan de Prevención de Adicciones de San Sebastian 2023-2027.
3. Hartzaileak • Substantziak edukitzeagatik edo kontsumitzeagatik zehapena duten pertsona helduak zein adingabeak, eta, hala badagokio, haien legezko arduradunak. • Substantziak kontsumitzeagatik edo edukitzeagatik gizarte-agenteek (poliziak, osasun-langileek, hezitzaileek...) detektatu dituzten eta zehapenik ez duten adingabeak eta haien legezko arduradunak. • Hizpide ditugun substantziak hezkuntza-testuinguruetan kontsumitzen atzemandako	**3. Población destinataria** • Personas, tanto adultas como menores de edad, que tienen una sanción por tenencia o consumo de sustancias y, en su caso, sus responsables legales. • Menores que han sido detectados por agentes sociales (policía, sanitarios, educadores...) por consumo o tenencia de sustancias y no tienen sanción y sus responsables legales. • Grupos detectados con consumo de sustancias en contextos educativos, así como

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

taldeak eta testuinguru horietako helduak (legezko arduradunak, hezitzaileak...).	los adultos de sus contextos (responsables legales, formadores, ...)
4. Mendekotasuna sortzen duten substantziak kontsumitzea edo edukitzea prebentzio programaren zerbitzua ematea. Enpresa esleipendunak lan hauek egin beharko ditu: 4.1 Hezkuntza-testuinguruetan substantziak kontsumitzen edo edukitzen atzemandako taldeak Adikzioen eta Droga Mendekotasunen Prebentziorako Udal Atalak hala eskatzen badio, prebentzio-ekintzak/tailerrak egin beharko ditu ikastetxeetan substantzia mendekotasun-sortzaileen kontsumoa prebenitzeko. Tailerren iraupena: - 1,5 orduko saio bat, gurasoentzako tailerrenak - 1,5 orduko bi saio, ikastetxeetako profesionalenak - 1,5 orduko bi saio, ikasle taldeenak 4.2. Berriz hezteko neurriak: substantziak edukitzea edo kontsumitzea dela-eta zehapena duten helduak nahiz adingabeak, eta, hala badagokio, haien legezko arduradunak; eta substantziak edukitzeagatik zehapenik ez duten adin txikoak: Enpresa esleipendunak Adikzioen eta Droga Mendekotasunen Prebentziorako Atalak adierazitako pertsonei eman beharko die zerbitzua. Adikzioen eta Droga Mendekotasunen Prebentziorako Udal Atalak substantziak edukitze edo kontsumitze kasuak atzeman ahal izango ditu, dela aurreko 4.1 atalaren bidez (eskoletan egindako tailerretan), dela gizarte-eragileen (polizia, osasun-langileak, hezitzaileak...), udal langileen, guraso edo legezko arduradunen edo informazioa izateko modua duten beste eragile batzuen bidez. 4.2.1. Hasierako elkarrizketak:	**4. Prestación del Programa de Prevención por consumo o tenencia de sustancias adictivas** La empresa adjudicataria deberá llevar a cabo las siguientes tareas: 4.1 Grupos detectados con consumo o tenencia de sustancias en contextos aducativos En los casos en los que se le requiera por parte de la Sección de Prevención de Adicciones y Drogodependencias municipal, deberá realizar acciones preventivas/talleres encaminadas a la prevención del consumo de sustancias adictivas en centros educativos La duración de los talleres será: - Una sesión de 1,5 horas para los talleres dirigidos a padres/madres - Dos sesiones de 1,5 horas cada una para los profesionales de los centros educativos - Dos sesiones de 1,5 horas cada una para los grupos de alumnos. 4.2. Medidas reeducativas por Tenencia o Consumo de Sustancias en personas, tanto adultas como menores de edad, y, en su caso, sus responsables legales, que tienen una sanción por tenencia o consumo de sustancias y Medidas reeducativas por tenencia de sustancias sin sanción en personas menores de edad: La empresa adjudicataria deberá prestar el servicio a las personas que indique la Sección de Prevención de Adicciones y Drogodependencia La Sección de Prevención de Adicciones y Drogodependencias municipal podrá detectar los casos de tenencia o consumo de sustancias en virtud del anterior apartado 4.1. (talleres en escuelas) o en virtud de casos detectados por agentes sociales (policía, sanitarios, educadores...), personal municipal, padres / madres o responsables legales u otros agentes que tengan acceso a información. 4.2.1. Entrevistas iniciales:

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Osasun Publikoa eta Animalien Ongizatea
Salud Pública y Bienestar Animal

Mandasko Dukearen Pasealekua, 12 | Tel. 943483878 | osasuna@donostia.eus | www.donostia.eus
20012 Donostia / San Sebastián

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Enpresa esleipendunak elkarrizketa bat egin beharko du, gutxienez ordubetekoa, substantziak kontsumitu edo eduki dituen pertsonarekin, eta baloratu hura gero. Hor egin beharrekoa, zehazki, hau izango da: - Elkarrizketatutako pertsonaren errealitatea aztertu eta zer arrisku eta babes faktore dituen atera. - Emandako laguntzarekin jarraitzeko motibatu. - Informazioa bildu lan-plan pertsonalizatua egiteko. Halaber, detektatutako pertsona adingabea bada, beste lan hauek ere egin beharko ditu familiarekin edo legezko tutorearekin: Familiaren edo legezko tutorearen balorazioa: - Familiaren errealitatea bildu eta aztertu. - Familiaren hezkuntza-estiloa ezagutu. - Adingabearekin zer itxaropen duten jakiteko informazioa biltzea. - Drogez eta drogak kontsumitzearen ginean zer jarrera duten baloratzea. Adikzioen eta Droga Mendekotasunen Prebentziorako Udal Atalak hala eskatzen dionean, informazioa udaltzainekin edo gizarte-zerbitzuekin kontrastatu beharko du. Horretarako, eginkizun hauek izango ditu: - Informazioa bildu eta familiarekin edo adingabearekin esku hartzen duten agenteekin partekatzea. - Informazioa, orientazioa... eskaintzea, esku-hartze profesionala hobetzeko (elkarrizketak, materialak...). 4.2.2. Kasuaren plana egitea Enpresa esleipendunak esku-hartze egokiena diseinatu beharko du, hasierako balorazio-elkarrizketetan jasotako datuetara egokituta eta esku hartzeko denbora planteatutako helburuak lortzera mugatuta. 4.2.3. Esku-hartzea: Lehen aipatutako kolektiboen beharrei erantzuteko garatu beharreko jarduerak izango dira:	La empresa adjudicataria deberá realizar una entrevista, de al menos 1 hora de duración, con la persona detectada con consumo o tenencia de sustancias y proceder a su valoración. En concreto, deberá: -Analizar su realidad e identificar factores de riesgo y protección que presenta. -Motivar para seguir con el apoyo ofrecido. -Recoger información para elaborar un plan de trabajo personalizado Asimismo, si la persona detectada es menor de edad, deberá realizar las siguientes actuaciones con la familia o la / el tutor legal: Valoración de la familia o la/el tutor legal: -Recoger y analizar la realidad familiar. -Conocer el estilo educativo de la familia. -Recabar información sobre las expectativas hacia la persona menor de edad. -Valorar la información que tienen con relación a las drogas y su posicionamiento ante los consumos. En los casos en los que se le requiera por parte de la Sección de Prevención de Adicciones y Drogodependencias municipal, deberá contrastar la información con agentes de la policía municipal y/o servicios sociales. Para ello, realizará las siguientes funciones: -Recoger y compartir información con los agentes que intervienen con la familia y/o menor. -Ofrecer información, orientación,... para mejorar la intervención profesional (entrevistas, materiales,...). 4.2.2. Elaboración del Plan de Caso La empresa adjudicataria deberá diseñar la intervención más adecuada ajustándose a los datos recogidos durante las entrevistas iniciales de valoración y limitando el tiempo de intervención para conseguir los objetivos planteados. 4.2.3. Intervención: Las actividades a desarrollar para dar respuesta a las necesidades de los colectivos anteriormente mencionados serán:

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

- Banakako esku-hartzea, gutxienez hasierako elkarrizketa bat eta gehienez jarraipeneko beste bat eginda. Gutxienez ordubeteko iraupena izango du bakoitzak. - Taldeko esku-hartzea: Adikzioen eta Droga Mendekotasunen Prebentziorako Udal Atalak hala eskatzen dionean, prebentzio ekintzak/tailerrak egin beharko ditu, substantzia mendekotasun-sortzaileen kontsumoa prebenitzeko. Tailerren iraupena: - 1,5 orduko bi saio. Gutxienez 6 parte-hartzaile izango dira, eta gehienez 12. Enpresa esleipendunak bermatu eta beharrezko neurriak hartuko ditu zerbitzuaren hartzaileek elkarrizketak eta tailerrak euskaraz edo gaztelaniaz egiteko aukera izan dezaten. Enpresa esleipendunak modu proaktiboan jardungo du euskararen erabilerari dagokionez; beraz, beti euskaraz zuzenduko da eta erabiltzaileak aukeratutako hizkuntza ofizialean jarraituko du. Baliabide horietako zein jarri abian Adikzioen eta Droga Mendekotasunen Prebentziorako Udal Atalaren mende izango da, faktore hauek erreferentziatzat hartuta: atzemandako zailtasunak, gabeziak edo premiak; atzemandako kontsumoa mota eta maila; eta beste faktore batzuk (Kasuaren Planean jasotakoak). 4.2.4. Ebaluazioa: Kasu bakoitzeko banakako txosten bat egitea, planaren arabera garatutako prozesua eta lortutako helburuak jasoko dituena.	- Intervención individual, con un mínimo de una entrevista inicial y un máximo de otra de seguimiento. Cada una de ellas, de al menos 1 hora de duración. -Intervención grupal: En los casos en los que se le requiera por parte de la Sección de Prevención de Adicciones y Drogodependencias municipal, deberá realizar acciones preventivas/talleres encaminadas a la prevención del consumo de sustancias adictivas La duración de los talleres será: - Dos sesiones de 1,5 horas cada una. El número de participantes será un mínimo de 6 y un máximo de 12 personas. La empresa adjudicataria garantizará y adoptará las medidas necesarias para que las personas destinatarias del servicio tengan la posibilidad de realizar tanto las entrevistas como los talleres en euskera o en castellano. La empresa adjudicataria actuará de forma proactiva en relación con el uso del euskera; por lo tanto, se dirigirá siempre en euskera y continuará en la lengua oficial elegida por la persona usuaria. La elección de la puesta en marcha de cada uno de estos recursos dependerá de la Sección de Prevención de Adicciones y Drogodependencias municipal que tendrá como referencia factores como las dificultades, carencias o necesidades detectadas, como del tipo y nivel de consumo detectados, u otros factores (recogidos en el Plan del Caso). 4.2.4. Evaluación: Elaboración de un informe individual por cada Caso donde se recoja el proceso desarrollado según el Plan del mismo y los objetivos conseguidos.
5. Zerbitzua emateko tokia Kontratatutako enpresak kontratua gauzatzeko moduko toki batzuk izan behar ditu: lantegietarako bi areto (gutxienez 6 pertsona kabitzeko modukoak, adingabeentzako eta	**5. Lugar de prestación.** La empresa contratada deberá disponer de espacios adecuados para la ejecución del contrato: dos salas para talleres con capacidad al menos para 6 personas, con el fin de poder

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Ayuntamiento Local - Secretaría

haien guraso edo legezko arduradunentzako tailerrak bateratu ahal izateko) eta banakako elkarrizketarako bulego bat. Izan, Donostiako udalerriaren izan behar dute toki horiek. Era berean, prebentzio materiala duten bideoak edo aurkezpenak ikusteko pantailak ere izan behar dituzte areto horiek. Zerbitzua emateko lekuak sexuen arabera bereizitako komunak-eta ere izan behar ditu. Ikastetxeetan substantzia mendekotasun-sortzaileen kontsumoa prebenitzeko ekintzak/tailerrak egiteko, dagokion ikastetxearen edo kolektiboaren instalazioetara bertara joan beharko da.	compaginar talleres para menores y sus padres o responsables legales, y un despacho para entrevistas individuales. Su ubicación física deberá estar dentro del término municipal de Donostia/San Sebastián. Estas salas deberán disponer de de pantallas para visionado de vídeos o presentaciones con material preventivo. El lugar de prestación deberá disponer de servicios higiénicos separados por sexos. Para la ejecución de las acciones preventivas/talleres encaminadas a la prevención del consumo de sustancias adictivas en centros educativos, deberá desplazarse a las instalaciones del centro o del colectivo en cuestión.
6. Enpresa esleipendunaren betebeharrak • Bi langile behintzat izatea plantillan, gutxienez 3 urteko esperientzia dutenak adikzioen prebentzioan. • Kontratua aurrera eramateko toki egokiak izatea, baldintza-agiri honen 5. apartatuan araututakoaren arabera. • Mendekotasuna sortzen duten substantziak kontsumitzea edo edukitzea prebentzio programa onartutako baldintza teknikoetan, denborazkoetan eta ekonomikoetan egingo da. • Kontratutik eratorritako lan teknikoa egitea, Agiri Tekniko hauetan, Administrazio Agirietan eta Donostiako Udalak kanpoan kontratatutako zerbitzuak behar bezala egiteko jarraibidean ezarritakoaren arabera, lan-harremana izatea aitortzeko erabakigarritzat har daitezkeen egintzak saihestearren. • Enpresa esleipendunak gutxienez ordenagailu finko bat eta eskuko beste bat ere izan behar ditu. • Lana egiteko izan behar den bulegoko material inprimatua eta suntsikorra ere hark jarri behar du.	**6. Obligaciones de la empresa adjudicataria** • La empresa deberá tener en su plantilla a 2 trabajadores/as, con una experiencia mínima de 3 años en el ámbito de la prevención en adicciones. • Disponer de espacios adecuados para la ejecución del contrato, según lo regulado en el apartado 5º del presente pliego. • El Programa de Prevención por consumo o tenencia de sustancias adictivas se desarrollará en las condiciones técnicas, temporales y económicas aprobadas. • Ejecutar la labor técnica derivada del contrato de conformidad con lo establecido en los presentes Pliegos Técnicos, en los Pliegos Administrativos y en la "Instrucción para la correcta ejecucion de los servicios externos contratados por el Ayuntamiento de San Sebastián en evitacion de actos que pudieran considerarse como determinantes para el reconocimiento de una relación laboral". • La empresa adjudicataria deberá disponer de al menos un ordenador fijo y otro portátil. • También deberá aportar todo tipo de material impreso y fungible de oficina que sea necesario para la actividad.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

• Enpresa esleipendunak ordaindu beharko ditu telefoniaren, Interneten, aplikazio informatikoen eta haien mantentze-lanen kostuak, bai eta zerbitzua ematekoan sortzen diren beste kostu guztiak ere.	• Los costes de telefonía, internet, aplicaciones informáticas y su mantenimiento, etc. o cualesquiera otros que se generen en la prestación del servicio correrán a cargo de la empresa adjudicataria
• Enpresa esleipendunak Donostiako Udaleko Adikzioen eta Droga Mendekotasunen Atalak eskatzen dion informazio guztia eman beharko du.	• La empresa adjudicataria deberá aportar cuanta información sea requerida por la Sección de Adicciones y Drogodependencias del Ayuntamiento de San Sebastián.
• Enpresa esleipendunak Donostiako Udaleko Adikzioen eta Droga Mendekotasunen Atalak planteatzen dituen proposamen tekniko guztiei erantzun beharko die.	• La empresa adjudicataria deberá responder cuantas propuestas técnicas se planteen desde la Sección de Adicciones y Drogodependencias del Ayuntamiento de San Sebastián
• Enpresa esleipendunak bere plantillako profesional bat izendatu beharko du programan parte hartzen duten profesionalak koordinatzeko. Koordinatzaile hori izango da Donostiako Udalarekin harremanetan izango den solaskide bakarra, eta hark izango du enpresa esleipenduneko gainerako langileei laneko aginduak eta jarraibideak zuzenean emateko ahalmena.	• La empresa adjudicataria deberá designar a un/a profesional de su plantilla para realizar funciones de coordinación de los profesionales que participen en el programa. Este coordinador será el interlocutor único con quien se relacionará el Ayuntamiento de San Sebastián y a quien corresponderá la facultad de impartir directamente las órdenes e instrucciones de trabajo al resto de trabajadores de la empresa adjudicataria.
Era berean, koordinatzaileak izango ditu kontratatu behar den jardueran izan behar diren enpresa antolaketa egiteko ahalmenak eta eskumenak, bai eta enpresa izateak dakartzanak ere (soldatak ordaintzea, negoziazio kolektiboa, baimenak onartu eta ematea, eta zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzea, bereziki).	Asimismo, el/la coordinador/a ejercerá las facultades y competencias organizativas empresariales necesarias para la actividad a contratar, y las derivadas de la condición de empresa, en especial para el pago de salarios, negociación colectiva, autorización y otorgamiento de permisos y cumplimiento de obligaciones tributarias y de Seguridad Social.
• Enpresako koordinatzaileak jarraipen eta koordinazio bileretan ere hartu behar du parte, Donostiako Udaleko Adikzioen eta Droga Mendekotasunen Atalak eskatutakoan.	• El/la coordinador/a de la empresa deberá participar en las reuniones de seguimiento y coordinación a solicitud de la Sección de Adicciones y Drogodependencias del Ayuntamiento de San Sebastián.
• Esleipendunak bere zuzendaritza eta kudeaketa ere jarriko ditu kontraturako; eta bere gain hartuko ditu, orobat, zerbitzua antolatzeko ardura, egiten dituen lanen eta zerbitzuen kalitate teknikoa eta enpresa arriskua ere.	• El adjudicatario aportará su propia dirección y gestión al contrato, siendo responsable de la organización del servicio, de la calidad técnica de los trabajos que desarrolle y de las prestaciones y servicios realizados y que asume el riesgo empresarial.
• Zerbitzuari atxikitako langileak zuzentzea eta funtzionatzeko modua ezartzea ere esleipendunaren eskumena besterena ez da izango. Udalak ez du inolako zuzendaritza-	• El poder de dirección y funcionamiento del personal adscrito al servicio será competencia exclusiva del adjudicatario. El Ayuntamiento no ostenta poder de dirección

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

ahalmenik kontratua aurrera eramango duen enpresako langileen gainean: ez du ez langileak hautatzeko gaitasunik izango, ez eta langileen oporrak, baimenak eta lan-ordutegiak ezartzeko ere. • Enpresa esleipendunak proiektuaren garapenari buruzko urteko ebaluazio-txostena egin behar du, eta jardun proposamen batzuk ere jaso han. Memoriak datu hauek jaso behar ditu: - Estaldura: kasu egindako pertsona, familia eta ikastetxe kopurua eta erantzundako beharren tipologia. - Prozesua: egindako tailer kopurua, banakako eta taldeko saio kopurua, zer hizkuntzatan eman diren, esku-hartze guztien iraupena. - Emaitzak: Kasu egindako pertsonak eta taldeak, altak/bajak, familien bilakaera, parte-hartze maila eta asistentzia. Urteko memoria bi hizkuntza ofizialetan idatziko da, euskarari lehentasuna emanda. Enpresa esleipendunak memoria bat aurkeztu beharko du, kontratuaren zerbitzua jasotzen duten pertsonen datuak sexuaren arabera bereizita, bai eta kontratua aurrera eramateko jarritako langileenak ere, datu horiek lortzeko jarraitu behar den metodologia ere adierazita.	alguna sobre los trabajadores de la empresa contratista destinadas a la ejecución del contrato: no tendrá capacidad para seleccionar trabajadores, ni para fijar las vacaciones y permisos de su personal, ni horario laboral alguno. • La empresa adjudicataria deberá elaborar un informe memoria anual evaluativo sobre el desarrollo del proyecto, con propuestas de actuación. La memoria deberá recoger los siguientes datos: - Cobertura: nº de personas, familias y centros educativos atendidos y tipología de necesidades atendidas. - Proceso:nº talleres desarrollados, nº sesiones individuales y grupales llevadas a cabo, lengua en la que se han impartido, duración total de las intervenciones - Resultados: Personas y grupos atendidos, altas/bajas, evolución de las familias, nivel de participación y asistencia. La memoria anual se redactará en las dos lenguas oficiales, dando prioridad al euskera. La empresa adjudicataria deberá aportar una memoria con datos desagregados por sexo de las personas usuarias o beneficiarias de la prestación contractual, así como del personal adscrito a la ejecución del contrato, con indicación de la metodología a seguir para su obtención.
8. Adikzioen eta Droga Mendekotasunen Prebentziorako Udal Atalaren betebeharrak Donostiako Udaleko Adikzioen eta Droga Mendekotasunen Atalari dagokio: • Kontratua aurrera eramateko behar den informazioa ematea enpresa esleipendunari. • Hilean behin, Substantziak Edukitzeagatik edo Kontsumitzeagatik Adingabeentzako Neurrien Zerbitzuaren koordinazio eta jarraipen bilerak deitzea. • Kontratatutako zerbitzua hobetzeko edo haren helburuak betetzeko birbideratu behar diren jarduera guztiak birbideratzea. • Zerbitzua aurrera eramateko jarritako	**8. Obligaciones de la Sección de Prevención de Adicciones y Drogodependencias municipal** Corresponderá a la Sección de Adicciones y Drogodependencias del Ayuntamiento de San Sebastián: • Aportar información necesaria para la ejecución del contrato a la empresa adjudicataria. • Convocar con periodicidad mensual reuniones de coordinación y seguimiento del Servicio de Medidas a Menores por Tenencia o Consumo de Sustancias. • Reorientar cualquier actuación de cara al cumplimiento de los objetivos o mejoras del servicio contratado.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

jarduerak edo metodologia ez bada pentsatuta zen bezala betetzen, Atalak erabakiko du haren orientazio berria eta zer zuzenketa egin behar den. • Zerbitzuan sartzeko moduko kasuak detektatzea. • Erabakiak hartzea, enpresak aurkeztutako informazioaren aurrean, lan-ibilbidearen lau unetan: - Taldeak eratzekoan. - Kasu planak egitekoan (taldekoak zein banakakoak). - Gauzatzearen eta emaitzen ebaluazioa egitekoan. - Kasu planetan egin beharreko aldaketak eta doikuntzak egitekoan.	• En el caso de que las actividades o metodología establecidos para el desarrollo del servicio no lleguen a cumplirse según lo previsto, la Sección decidirá la nueva orientación y las correcciones que sean necesarias. • Detectar los casos potenciales a incorporarlos al servicio. • Tomar decisiones, ante la información presentada por la empresa, en cuatro momentos del itinerario de trabajo: - Configuración de grupos. - Planes de Caso tanto grupales como individuales. - Evaluación de ejecución y resultados. - Modificaciones y ajustes necesarios en los Planes de Caso.
9. Ebaluazio eta kontrol sistema. Ebaluazioaren bidez, lanaren eraginkortasuna baloratu eta hobetu beharreko alderdiak identifikatu nahi dira. Ebaluazioa une batean baino gehiagotan eta helburu batekin baino gehiagorekin egingo da. Hiru ebaluazio motak Donostiako Udaleko Adikzioen eta Droga Mendekotasunen Atalak egingo ditu, enpresa esleipendunaren koordinatzailearekin batera, kontratatutako enpresari agindutako lanak eraginkortasunez egiten diren kontrolatzeko. Hileko ebaluazioa: Ekintza honen bidez, enpresak hilabetean aktibatutako Kasu Planen eta ikastetxeetako taldeen betetze maila neurtuko da, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen Prebentziorako Atalak gainbegiratuta. Prozesuko ebaluazioa: Balorazio hori ikasturtean egingo diren jarraipen eta koordinazio bileretan egingo da, eta tokian bertan Adikzioen eta Droga Mendekotasunen Prebentziorako Atalak hala egin behar dela iritzitako baliabide aktibatuetan. Ebaluazio aldi horretan, helburua da ekintza egitekoan sortzen diren zailtasunak edo interesak identifikatu eta egin behar diren aldaketak egitea. Azken ebaluazioa: ebaluazio hori ikasturtearen amaieran egingo da, eta proiektuaren garapena ebaluatzeko egindako urteko memoria-txostena izango du oinarri, kontratatutako enpresak	**9. Sistema de evaluación y control.** Mediante la evaluación, se pretende valorar la eficiencia del trabajo e identificar aspectos a mejorar. La evaluación se produce en diferentes momentos y con diferentes objetivos. Los tres tipos de evaluación serán efectuados por la Sección de Adicciones y Drogodependencias del Ayuntamiento de San Sebastián junto a la/el Coordinador/a de la empresa adjudicataria, para el control efectivo de los trabajos encomendados a la empresa contratada. Evaluación mensual: Mediante esta acción se medirá el nivel de cumplimiento de los Planes de Caso activados y grupos de centros educativos durante el mes por parte de la empresa, bajo supervisión de la la Sección de Prevención de Adicciones y Drogodependencias municipal. Evaluación procesual:Esta valoración se llevará a cabo en las reuniones de seguimiento y coordinación que se realizarán durante el curso escolar, e "in situ" en los recursos activados que considere necesario la Sección de Prevención de Adicciones y Drogodependencias municipal. En esta fase de evaluación se pretende identificar las dificultades o intereses que surgen durante la acción e introducir los cambios necesarios. Evaluación final:Esta evaluación se realizará al final del curso escolar y se hará sobre el informe memoria anual evaluativo del desarrollo del proyecto, junto con las propuestas de

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Osasun Publikoa eta Animalien Ongizatea
Salud Pública y Bienestar Animal

Mandasko Dukearen Pasealekua, 12 | Tel. 943483878 | osasuna@donostia.eus | www.donostia.eus
20012 Donostia / San Sebastián

proposatzen dituen jarduera-proposamenekin batera.	actuación que proponga le empresa contratada.
10. COVID-19ak edo beste edozein izurrite egoerak sortutako osasun larrialdia: Enpresa esleipendunak beti errespetatu beharko ditu Gobernuak (Espainiako Gobernua, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia edo Donostiako Udala) COVID-19a edo beste edozein izurrite zabaltzea geldiarazteko hartzen dituen osasun-neurriak (segurtasun-tartea, gehieneko edukiera, osasun-produktuen erabilera, konfinamendu-neurriak eta abar).	**10. Referencia a la situación de alarma sanitaria del covid-19 o cualquier otra situación epidémica:** La empresa adjudicataria deberá respetar, en todo momento, las medidas sanitarias que el Gobierno (Gobierno de España, el Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Gipuzkoa o el Ayuntamiento de San Sebastián) adopte para frenar la expansión del covid-19 o cualquier otra situación epidémica: tales como, distancia de seguridad, aforos máximos, uso de productos sanitarios, medidas de confinamiento, etc.

Donostian, 2023ko maiatzaren 22an / En San Sebastián, a 22 de mayo de 2023

OSASUN PUBLIKOAREN ETA ANIMALIEN ONGIZATEAREN ZERBITZUBURUA / EL JEFE DEL SERVICIO DE SALUD PÚBLICA Y BIENESTAR ANIMAL

Izpta. / Fdo.: Sergio Fernández Unanue

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Lege Zuzendaritza - Dirección Jurídica

Tokiko Gobernu Batzarrak onartua.
Aprobado por la Junta de Gobierno Local.

2023

Batzordeko idazkaria,
El/La secretario/a de la Junta,